



ERABAKIA, GRADUAREN ETA HEZKUNTZA BERRIKUNTZAREN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, UPV/EHUko TITULUETAN ETA TITULUAREN GEHIGARRI EUROPARREAN TITULUDUNEN IZEN-ABIZENAK IDAZTEKO IRIZPIDE ORTOGRAFIKOAK EZARTZEKO

Erabaki honen bidez, Euskal Herriko Unibertsitatearen irizpide ortografikoak ezarriko dira tituludunen izen-abizenak tituluetan eta tituluaren gehigarri europarrean idazteko.

Abuztuaren 5eko 1002/2010 Errege Dekretuak zehazten du zein baldintza eta prozedura bete behar diren gradu, master eta doktoregoko ikasketa ofizialen tituluak emateko, eta zein baldintzatan eta zein prozeduraren bidez eman dezaketen Espainiako unibertsitateek tituluaren gehigarri europarra (TGE) ikasketa horietan.

Dekretuak 17. artikuluan zehazten du tituluaren pertsonalizazioari dagokiona, eta, besteak beste, honako hau dio:

"1. Los títulos universitarios oficiales incluirán en su anverso, además de las menciones que se señalan en otros artículos de la presente norma, los siguientes datos:

(...) b) Nombre y apellidos de la persona interesada, tal y como figuren en su documento nacional de identidad o pasaporte válido y en vigor expedido por la autoridad competente del país de origen u otro documento de identidad en vigor válido a estos efectos en el estado miembro correspondiente."

Beraz, indarreko nortasun agiri nazionalakoa edo pasaportekoa da izen-abizenetan erabili beharreko grafia. Hala ere, dokumentu horietan batzuetan azentuak eta dieresiak falta izaten direnez, zenbait irizpide eman behar dira akats hori zuzentzeko. Horretarako, jarraibide batzuk ezarriko ditugu unibertsitateak bere dokumentuetan erabiliko duen grafiarako. Era berean, zehaztuko dugu interesdunek noiz eta nola egin behar duten horren inguruko eskaria, nahi izanez gero.

1. UPV/EHUren tituluetan eta TGEN erabiliko den grafiarako irizpideak.

Honako jarraibide hauei eutsiko zaie tituluetan eta TGEN interesdunen izen-abizenak idaztean:

- a) NANean edo pasaportean agertzen den grafia erabiliko da tituluetan eta TGEN.
- b) Interesdunak nahi badu NANean edo pasaportean agertzen denaz bestelako grafia bat erabiltzea, dokumentu ofizial horietan ez delako azentu edo dieresiren bat agertzen, hori adierazi beharko du titulu eskuratzeko eskarian, 2. atalean zehaztuko den bezala.

Halakoetan, NANean edo pasaportean agertzen den grafia eta interesdunak eskatutakoa bat ez badatoz, eskarian agertzen dena



erabiliko da, hizkuntza bakoitzerako indarrean dauden arau ortografikoak betetzen baldin baditu. Horri dagokionez,

- 1) gaztelaniarako, Espainiako Errege Akademiaren arauari jarraituko zaie. Esteka honetan daude ikusgai: <https://www.rae.es/>
- 2) euskararako, Euskaltzaindiako onomastikako datu baseari jarraituko zaio. Esteka honetan dago ikusgai: <https://www.euskaltzaindia.eus/>
- c) NANean edo pasaportearen azenturen bat agertzen bada, baina interesdunak bestelako grafia bat aurkeztu badu bere eskarian, normalean NANekoari edo pasaportekoari eutsiko zaio.

Salbuespenez, interesdunak aurkezten badu ziurtagiri bat, frogatzen duena erregistro zibilean aldatu duela bere izen-abizenen grafia eta orain bere eskarian agertzen den legez daukala ipinita, orduan erregistro zibilekoa erabiliko da.

- d) Datu pertsonaletan besterik aldatu nahi izanez gero, ezinbestekoa izango da interesdunak aurretik erregistro zibilean –eta, hortaz NANean edo pasaportearen– aldatzea dena delako xehetasuna. Tramite hori egin artean, NANeko edo pasaporteko grafia erabiliko da.

2. Grafia aldaketak eskatzeko garaia eta era.

Azentuazioari edo dieresiei dagokienez, interesdunak gura badu NANean edo pasaportearen agertzen denaz bestelako grafia bat erabiltzea tituluan edo TGEan, halaxe adierazi beharko du titulua edo TGEa eskuratzeko eskarian.

Titulua edo TGEa behin emanda, dokumentu horiek ez dira berriro sortuko halako grafia aldaketak egiteko.

Leioa, 2024ko maiatzaren 7a

Laura Vozmediano Sanz
Graduaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren arloko errektoreordea